

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
88/2011	R3/2014	2014/10/13	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Zerga egoitza. Administrazio eskudunaren onarpena

Ebazpena: R3/2014

Espedientea: 88/2011

Vitoria/Gasteiz, 2014ko urriaren 13a

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, Isaac Merino Jarak txostengile gisa jardunez, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

ERAKUNDEAK (IFK: LETRA-ZENBAKIA) aurkeztutako idazkiari buruzkoa, zeinaren bitartez adierazten den "gatazka negatiboa jarri zuela Ituneko Arbitraje Batzordearen aurrean 2011ko maiatzaren 6an, eta Zerga Administrazioko Estatuko Agentziaren aldetik erabakia eta gaiaren konponbidea jaso zuela, hori Batzordeari jakinaraziz espedientea itxi dezan".

I. AURREKARIAK

1. 2011ko maiatzaren 6an Arbitraje Batzorde honen erregistroan ERAKUNDEAK aurkeztutako idazkia sartu zen, zeinaren bitartez gatazka planteatzen zuen, merkataritza-sozietatearen egoitza Espainian ezartzeari lotuta, egoiliarra ez zen eta ezarpen iraunkorra ez zuen erakundea izanik, eta administrazio eskudunak sozietateak nahitaez aurkeztu behar dituen aitortpenak aurkezteko erabakiaren ondorioetarako.

2. Gatazka jartzeko idazkiari administrazioek eskudun izateari egindako ukoa ez zitzaion gaineratu. Konpontzeko eskatuta, Bizkaiko Foru Aldundiak 2009ko ekitaldiari zegokion BEZaren itzulketa egiteari egindako ukoa aurkeztu zen.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
88/2011	R3/2014	2014/10/13	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Zerga egoitza. Administrazio eskudunaren onarpena

3. 2014ko urriaren 9an ERAKUNDEAK Arbitraje Batzordeari jakinarazi zion Zerga Administrazioko Estatuko Agentziak planteatu zen gaiari erantzuna eta konponbidea eman ziola, Batzordeari horren berri emanez espedientea artxiba dezan. Zerga Administrazioko Estatuko Agentziak planteatu zen gaia konpondu dela berretsi du.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren 8. artikuluan xedatutakoari jarraiki, "Arbitraje Batzordearen deialdiei, eraketari, bilkurei, ebazpenei, funtzionamendu-erregimenari eta prozedurari dagokienez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoari jarraituko zaio".

2. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 91 artikulua 2. idatz-zatiak ezartzen duenez, "Administrazioak bete-betean onartuko du atzera egitea edo uko-egitea, eta amaitutzat emango du prozedura; hala ere, ez du prozedura amaitutzat emango, salbu eta hirugarren interesdunik aurkezten bada eta, atzera egitea jakinarazi eta hamar egunetan, prozedura aurrera eramateko eskatzen badute interesdun horiek".

Horri jarraiki, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
88/2011	R3/2014	2014/10/13	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Zerga egoitza. Administrazio eskudunaren onarpena

1.- ERAKUNDEAK (IFK: LETRA-ZENBAKIA) 2011ko maiatzaren 6an planteatutako gatazka-espedita artxibatzea, merkataritza-sozietatearen egoitza Espainian ezartzeari lotuta, egoiliarra ez zen eta ezarpen iraunkorra ez zuen erakundea izanik, eta administrazio eskudunak sozietateak nahitaez aurkeztu behar dituen aitortpenak aurkezteko erabakiaren ondorioetarako.

2.- Jardunak amaitzeko eta artxibatzeko agintzea.